



Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2009ko urtarrilaren 27koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera esparruan administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzei buruzkoa

Acuerdo del Consejo de Diputados, de 27 de enero de 2009, sobre inserción de condiciones lingüísticas en la ejecución de los contratos administrativos en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren Atariko Tituluan herri honen nortasun ezaugarriak daude jasota. Bertan adierazten dira, hurrenkera honetan, izena, hartzen duen lurraldea, erkidego osorako erakundeen egoitzak, bandera, hizkuntza eta, azkenik, Euskal Autonomi Erkidegoko herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren zerrenda.

El Estatuto de Autonomía del País Vasco recoge en su Título Preliminar lo que sin duda constituyen las señas de identidad de este país. En él se incluyen, por orden, el nombre, la composición territorial, la sede de nuestras instituciones comunes, la bandera y la lengua, y concluye con la relación de los derechos y los deberes fundamentales de los ciudadanos del País Vasco.

Gurea gizartea elebiduna da, eta herri administrazio elebidun batek kudeatzen ditu horren interesak, kontuan izanik antolamendu juridikoak euskara eta gaztelania jotzen dituela ofizialtzat, biei balio eta duintasun berbera emanda.

Es la nuestra una sociedad bilingüe, cuyos intereses son gestionados por una Administración Pública bilingüe, cuyo ordenamiento jurídico reconoce como oficiales, iguales en valor y en dignidad, al euskera y al castellano.

Testuinguru horretan, administrazioaren jarduera ezin da ulertu hizkuntzari buruz onartuta dagoen araubide juridikotik kanpo. Hizkuntza bien ofizialtasunak berme bat izan behar du herritarrek askatasunez aukeratutako hizkuntza erabili ahal izan dezaten botere publikoen eta horien agenteen aurrean. Botere publikoek hizkuntza bien ofizialtasunaren aurrean izan behar duten jarrerak, ordea, ez du diskrezionalitateko biderik ematen.

En este contexto, no puede concebirse actividad administrativa ajena al régimen jurídico-lingüístico establecido. La doble oficialidad lingüística debe garantizar al ciudadano el derecho a utilizar con los poderes públicos y sus agentes la lengua oficial que libremente elija, pero la posición de los poderes públicos ante la doble oficialidad lingüística no permite la discrecionalidad.

Elebitasuna ez da hautazkoa herri administrazioarentzat; aitzitik, legezko eskakizuna da eta administrazioaren jarduera bat ere ez dago salbuetsita, ezta kontratazioa ere.

El bilingüismo no tiene carácter dispositivo para la Administración Pública, antes bien, constituye una exigencia legal de la que no se halla excluida ninguna de sus actividades. Tampoco la contratación.

Beraz, indarrean dagoen antolamendu juridikoari atxikitzeko eta gizartearen eta administrazioaren errealitatearekin koherente izateko, nahitaezkoa da ondasunak eta zerbitzuak eman eta hartzeko burutzen diren administrazio jardueretan gure autonomia erkidegoko hizkuntza bietan normaltasunez funtzionatzea, baita administrazioaren kontratazio publikoaren alorrean ere, hala kontratazioaren helburu diren

Por consiguiente, sólo puede considerarse inherente al orden jurídico vigente y coherente con la realidad social y administrativa que, tanto cuando la receptora de las prestaciones objeto de la contratación es una Administración bilingüe como es la nuestra, como cuando la Administración encomienda a una empresa privada la gestión y la prestación de determinados bienes y servicios a una sociedad bilingüe como



prestazioen hartzailea administrazio elebiduna denean, gure kasuan bezala, nola administrazioak enpresa pribatu baten esku jartzen duenean gurea bezalako gizarte elebidun bati eman beharreko ondasun eta zerbitzuak kudeatu eta emateko ardua.

Ildo horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Foru Dekretuko 16. artikuluan, hainbat betebeharrak eta baldintzak jasotzen dira Foru Aldundiarekin kontratuak egiteko garaian.

Honako erabaki hau aurreko hori osatzera eta Foru Aldundiko departamentuei argibideak ematera dator.

Hori dela eta, Kultura eta Euskarako foru diputatuak proposatuta eta, Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura esparruan administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzak, jarraian azaltzen direnak, onartzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura esparruan administrazio kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzak

1.- Xedea eta aplikazio eremua

Gipuzkoako Foru Aldundiko kontratazio organoek nahitaez sartuko dituzte kontratuen karatuletan eta administrazio baldintza berezien agirietan kontratuak burutzean bete behar diren hizkuntza baldintzak eta horiek ez betetzeak dakartzan ondorioak, ondorengo ataletan jasotako edukien arabera.

2.- Herritarren eskubideak

Kontratu bidez emandako jarduerak edo zerbitzuak Foru Aldundiak berak emanak izango

es nuestro caso, se garantice el funcionamiento normal de la actividad administrativa, prestadora y receptora de bienes y servicios, en las dos lenguas oficiales en nuestra Comunidad Autónoma también a través de la contratación pública.

En tal sentido, el Decreto Foral que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa establece en su artículo 16 determinadas obligaciones y requisitos en el campo de la contratación de la Diputación Foral.

El presente acuerdo viene a complementar dicha regulación y a ofrecer a los departamentos de la Diputación Foral directrices claras al respecto.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura y Euskera, y previa deliberación, el Consejo de Diputados en su sesión de hoy,

ACUERDA

Aprobar las condiciones lingüísticas que figuran a continuación, en la ejecución de los contratos administrativos en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Condiciones lingüísticas que deben cumplirse en la ejecución de los contratos administrativos en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

1.- Objeto y ámbito de aplicación

Los órganos de contratación de la Diputación Foral de Gipuzkoa deberán insertar obligatoriamente en las carátulas y pliegos de cláusulas administrativas particulares las condiciones lingüísticas a cumplir en la ejecución del contrato, así como las consecuencias que se deriven de su incumplimiento, conforme a los dispuesto en los siguientes apartados.

2.- Derechos de los ciudadanos

Se reconoce a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a obtener las actividades y servicios



balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

3.- Administrazio baldintza berezien agirietako karatulan jaso beharrekoak

1. Administrazio baldintza berezien agirietako karatulan, azpiatal bat jarriko da kontratuak gure antolamendu juridikoan ezarritako hizkuntza araubide juridiko ofiziala bete behar duela adierazteko. Hona hemen horren edukia:

“Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduera esparruan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duen Foru Dekretuan, erregulatua.”

Hizkuntza biak erabiltzea kontratua gauzatzeko baldintzetako bat da eta, bete ezean, zein ondorio izango dituen zehaztu beharko da karatulan bertan, ondorengo 4. atalean ezarritakoari jarraikiz.

2. Zerbitzu kontratuen karatulan, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriak direla-eta kontratua hizkuntza ofizial bakarrean edo ez ofizial batean edo jakin batzuetan gauzatu behar bada eta administrazio baldintza berezien agirian hori adierazi behar bada, aurreko testuari hauxe erantsiko zaio:

“... ondokoa salbu, kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek, kontratua ezinbestean hizkuntza ofizial bakarrean, edo beste hizkuntza batzuetan, soilik gauzatzeko eskatzen badute eta kontratuaren administrazio baldintza berezien agirian horrela jasota badago.”

4.- Administrazio baldintza berezien agirietan jaso beharreko klausulak

prestados mediante contratos en las mismas condiciones que si fueran realizadas por la propia Diputación Foral.

3.- Indicaciones en la carátula de los pliegos de cláusulas administrativas particulares

1. En la carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares de los contratos administrativos se incluirá un nuevo subapartado para indicar la sujeción del contrato al régimen lingüístico oficial establecido en nuestro ordenamiento jurídico. Su contenido será el siguiente:

“Este contrato se halla sujeto al régimen de doble oficialidad lingüística establecido por el Estatuto de Autonomía del País Vasco en su artículo 6º y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, y por la normativa que la desarrolla, entre otros el Decreto Foral que regula el uso de las lenguas oficiales en el ámbito de la Diputación Foral de Gipuzkoa.”

El uso de ambas lenguas oficiales constituye una condición de ejecución del contrato, y en la carátula se deberán señalar las consecuencias que se deriven de su incumplimiento, conforme a lo establecido en el apartado 4 siguiente.

2. En la carátula de los pliegos de contratos de servicios en los que las características intrínsecas de la prestación objeto del contrato exijan su realización en determinadas lenguas, oficiales o no, y así se contemple en el correspondiente pliego, se añadirá a continuación del texto anterior lo siguiente:

“... sin perjuicio de que las características intrínsecas de la prestación objeto del contrato exijan su realización necesaria y exclusivamente en una sola lengua oficial, u otras lenguas y así esté contemplado en el pliego de cláusulas administrativas particulares.”

4.- Indicaciones en los pliegos de cláusulas administrativas particulares



Administrazio baldintza berezien agirietan, hizkuntza baldintza hauek sartuko dira, kontratu motaren arabera:

a) Obra kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Baldintza hau betetzen ez bada, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoak, 196. artikuluan aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorraren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.”

b) Herri-lanen emakidetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Errotuluak, oharra, seinaleak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Baldintza hau betetzen ez bada, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak buruzkoak, 196. artikuluan aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorraren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.”

Horrez gain, kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoak eta juridikoak egiten diren guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren

Los pliegos de cláusulas administrativas particulares deberán contener las siguientes indicaciones lingüísticas, según el tipo de contrato:

a) En los contratos de obra:

Se incluirá una cláusula con el siguiente texto:

“Los rótulos, avisos, señalizaciones y otras comunicaciones de carácter general se realizarán en euskera y en castellano. El incumplimiento de este requisito lingüístico dará lugar a la imposición de la penalidad prevista en el artículo 196 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, por ejecución defectuosa de la prestación objeto del contrato. La penalidad será conforme a la gravedad del incumplimiento, de acuerdo con un criterio de proporcionalidad.”

b) En las concesiones de obra pública:

Se incluirá una cláusula con el siguiente texto:

“Los rótulos, avisos, señalizaciones y otras comunicaciones de carácter general se realizarán en euskera y en castellano. El incumplimiento de este requisito lingüístico dará lugar a la imposición de la penalidad prevista en el artículo 196 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, por ejecución defectuosa de la prestación objeto del contrato. La penalidad será conforme a la gravedad del incumplimiento, de acuerdo con un criterio de proporcionalidad.”

Además, cuando el objeto del contrato incluya la prestación de servicios a los ciudadanos, la lengua utilizada en la comunicación, tanto oral como escrita, entre la empresa encargada de la ejecución y los usuarios del servicio será aquella que elija el usuario en cada caso. Cuando no conste expresamente opción alguna, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo que la empresa encargada de la ejecución dirija a las personas físicas y jurídicas se realizarán en las dos lenguas oficiales, incluyendo las facturas y otros documentos de tráfico, sin perjuicio de que en



jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzea. Baldintza honek kontratuaren funtsezko obligazio izaera dauka Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen ondorioetarako, eta hortaz, ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, aipatu legearen 206.g) artikuluari jarraikiz.”

c) Hornidura kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Karatulan espresuki besterik adierazten ez bada, enpresa esleipendunak hizkuntza bietan eskainiko ditu erabilera eskuliburuak eta kontratuaren xede diren ondasun eta produktuei buruzko dokumentazioa, softwareetako testuzko eta soinuazko interfazeak barne. Baldintza hau betetzen ez badu, urriaren 30eko 30/2007 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 196. artikuluan aurreikusitako zigorra jarriko zaio esleipendunari kontratuaren xede den prestazioa behar bezala ez betetzeagatik. Zigorren zenbatekoa ez betetzearen larritasunaren arabera izango da, proportzionaltasun printzipioari jarraikiz.”

Kontratu egileak aukera izango du aipatu erabilera eskuliburuak eta gainerako dokumentazioa hizkuntza ofizial bakar batean eskatzeko esleipendunari, batez ere, horniduraren xede den produktuaren edo ondasunaren izaera kontuan hartuta.

d) Zerbitzu kontratuetan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Karatulan espresuki besterik adierazten ez bada, kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, softwareetako testuzko eta soinuazko interfazeak barne.

Kontratuak hirugarrenei edo, oro har, herritarrei zerbitzuak ematea edo horiekin harremanak izatea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura

cualquier momento el receptor de la prestación pueda ejercer su derecho a la opción de lengua y pueda demandar el uso de una sola de las lenguas oficiales. Este requisito constituye una obligación esencial del contrato a los efectos de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 206.g) de la citada ley.”

c) En los contratos de suministro:

Se incluirá una cláusula con el siguiente texto:

“Salvo que en la carátula se indique otra cosa, la empresa adjudicataria facilitará en ambas lenguas oficiales los manuales de instrucciones o la documentación de los bienes y productos objeto del contrato, incluidos los interfaces textuales y sonoros de los diferentes software. El incumplimiento de este requisito lingüístico dará lugar a la imposición de la penalidad prevista en el artículo 196 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, por ejecución defectuosa de la prestación objeto del contrato. La penalidad será conforme a la gravedad del incumplimiento, de acuerdo con un criterio de proporcionalidad.”

El contratante tendrá la opción de exigir al adjudicatario los manuales de instrucciones y el resto de documentación en una sola lengua oficial, en función de la naturaleza de los productos o bienes objeto del suministro.

d) En los contratos de servicios:

Se incluirá una cláusula con el siguiente texto:

“Salvo que en la carátula se indique otra cosa, los estudios, informes, proyectos u otros trabajos que constituyan el objeto del contrato se realizarán en ambas lenguas oficiales, incluidos los interfaces textuales y sonoros de los diferentes software.

En aquellos contratos que incluyan la prestación de servicios o relaciones con terceros o ciudadanos en general, la lengua utilizada en la



duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden pertsonak kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzea.

Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen ondorioetarako, eta hortaz, ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, aipatu legearen 206.g) artikuluari jarraikiz.”

Kontratu egileak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren txostenak hizkuntza ofizial bakar batean eskatzeko esleipendunari. Halakoetan Euskara Zuzendaritza Nagusiak ez dio inolako itzulpen zerbitzurik eskainiko kontratu egileari.

e) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan eta zerbitzuak ematea edo hirugarrenekin harremanetan jartzea eskatzen duten administrazio kontratu berezietan:

Klausula bat sartuko da testu honekin:

“Esleipendunek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte errotuluetan, megafonia bidezko komunikazioetan, erabiltzeko jarraibideetan, etiketan eta ekoiztutako produktuen bilgarrietan, baita eskaintzen dituzten zerbitzuak emateko sortzen diren dokumentuetan ere.

Kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak eta erabiltzaileek edo harremanetan dauden hirugarrenek kontratua dela-eta burutu behar dituzten ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan hirugarrenak edo

comunicación, tanto oral como escrita, entre la empresa encargada de la ejecución y los usuarios o personas con las que haya de relacionarse en ejecución del contrato será aquélla que elija el usuario o tercero, en cada caso. Cuando no conste expresamente opción alguna, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo que la empresa encargada de la adjudicación dirige a personas físicas y jurídicas se realizarán en las dos lenguas oficiales, incluyendo las facturas y otros documentos de tráfico, sin perjuicio de que en cualquier momento el ciudadano pueda ejercer su derecho a la opción de lengua y pueda demandar el uso de una sola de las lenguas oficiales.

Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 206.g) de la citada ley.”

El contratante tendrá opción a exigir al adjudicatario los informes generados mediante el contrato en una sola lengua oficial. En tal caso, la Dirección General de Euskera no proporcionará servicio de traducción alguno al contratante.

e) En los contratos de gestión de servicios públicos y en los contratos administrativos especiales cuya ejecución implique prestación de servicios o relaciones con terceros:

Se incluirá una cláusula con el siguiente texto:

“Los adjudicatarios han de emplear el euskera y el castellano en la rotulación, en las comunicaciones por megafonía, en las instrucciones de uso, en el etiquetaje y en el embalaje de los productos que produzcan y en los documentos que genere la prestación de servicios que ofrezcan.

La lengua utilizada en la comunicación, tanto oral como escrita, entre la empresa encargada de la ejecución y los usuarios o terceros con los que haya de relacionarse en ejecución del contrato será aquélla que elija el usuario o tercero, en cada



erabiltzaileak kasuan kasu aukeratutako hizkuntza erabiliko da. Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratuaren esleipena duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta salerosketako bestelako agiriak barne. Hala ere, herritarrak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizial bakar bat erabiltzea.

Klausula honetan aurreikusitako baldintzek kontratuaren funtsezko obligazio izaera daukate Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen ondorioetarako, eta hortaz, ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar lezake, aipatu legearen 206.g) artikuluari jarraikiz.”

5.- Kontratua gauzatzeko hizkuntza baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzea.

Idazkaritza Tekniko bakoitzak neurriak hartuko ditu ezarritako hizkuntza baldintzak zenbateraino bete diren ebaluatzeko, Euskara Zuzendaritza Nagusiaren laguntzaz eta aholkularitzaz.

Kontratazioa egin eta kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren neurriak hartuko dituzte kontratuen exekuzioa dela eta, erabilitako hizkuntzen zuzentasuna zaintzeko, itzulpen zerbitzu zentralen laguntzaz eta aholkularitzaz.

Idazkaritza Tekniko guztiek urtero, urtarrilean, txosten xehakaturia aurkeztu beharko dute Euskara Zuzendaritza Nagusian, erabaki hau aurreko urtean zenbateraino bete den azalduz. Txosten horiek, Euskara Zuzendaritza Nagusiak Diputatuen Kontseiluan aurkeztuko duen txosten orokorraren eranskin gisa txertatuko dira.

caso. Cuando no conste expresamente opción alguna, las notificaciones y comunicaciones de todo tipo que la empresa encargada de la adjudicación dirija a personas físicas y jurídicas se realizarán en las dos lenguas oficiales, incluyendo las facturas y otros documentos de tráfico, sin perjuicio de que en cualquier momento el ciudadano pueda ejercer su derecho a la opción de lengua y pueda demandar el uso de una sola de las lenguas oficiales.

Los requisitos de esta cláusula constituyen obligaciones esenciales del contrato a los efectos de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público, y su incumplimiento puede motivar la resolución del mismo, de conformidad con el artículo 206.g) de la citada ley.”

5.- Evaluación del cumplimiento de las condiciones lingüísticas de ejecución.

Cada secretaría técnica establecerá las medidas necesarias para evaluar el cumplimiento de los requisitos lingüísticos, con la ayuda y asesoramiento de la Dirección General de Euskera.

Los órganos competentes en la contratación en su gestión adoptarán las medidas oportunas para garantizar la corrección lingüística en la ejecución del contrato, con la ayuda y asesoramiento de los servicios centrales de traducción.

Las secretarías técnicas deberán presentar un informe anual, en el mes de enero, sobre el grado de cumplimiento del presente acuerdo durante el año precedente. Dicho informe se incluirá, en cada caso, como anexo al informe general que la Dirección General de Euskera presentará al Consejo de Diputados.